

BASA-IKOAREN LOREA

Nabarnizko Tomas Ibarguenek kontatua
Aita Zenon Uriguen Pasiotarrak egokituta



Nabarnizko Illuntzar mendian leiza bat dago inork sekula ondorik neurtu bako. Leiza onek larrez eta otaz erdi itsutua dauko beronen aoa. Eta aizeak zabalduetako aziren batzuetatik erneta, basa-ikoaren landare bat ikusten zan barrualdean. Bein baten ama ta bere semetxea etorri ziran leiza ori ezagutzera. Umetxoak basa-ikoaren adarretan lore eder bat ikusirik, esaten dautso amari

Ama, pitxia

Ez maitetxo, kaka dauko ta.

Pitxia, pitxia.

Esanda negarrari emon eutson umeak. Eta zer? Laprast. egin eta lar artean gerattu zan ez gora ez bera egin eziñik. Amak, ori ikusita, txillioka asi zan eta plaut jausi zan leizara. Ama eta ume, ainbat sasi zatituaz, ainbeste saguzar eta basa pizti leiza barrutik uxaturik, geldi-geldika leiza barru sakonetan, 300 metro baño geiago, amildu ziran. Inork ez daki arrezkero euren barririk.

Mendi barrenean ur gorria dario atxari. Baserriarrak aren gorritasuna ikusirik ama errukarriaren gona gorriak gorritzen dabela barruko ura uste dabe.

Iñeritze (ikus: inarratza-brezal) leizean gertatu ei zan erri-ipuiñ au.

Resurrección María de Azkue. Euskal erriaren Jakintza. Literatura popular de País Basco. Il liburua ipuiñak eta irakurgaiak. Euskaltzaindia Espasa Calpe, Bilbao 1989

BOLUNAKO LEIZA

Kortezubiko Tomas Kobeagak kontatua
Aita Zenon Uriguen Pasiotarrak egokituta

Ama alabak Nabarniz mendira joan ziran eta Bolunako leizan, Ereñoko Gabikatik gertu, alabak ikusi ebazan basa-ikoak eta amari esan eutson: ama, artu egidazuz basa-ikoak. Ama igon zan goi-aldeko tantaira eta jausi zan leiza barrura. Alaba gaztea negar zotinka egoan bertan ama jausi zalako leiza sakonera. Menditxoaren oñetan dago burdiñ ura emoten dauan iturburu bat eta bertako ur gorrixka ama aren jantzi gorri-gaitik dala uste dau erriak.

Ereñoko Gabina auzoko Boluna leiza, ezkerretara dago, eta Bollar auzoko iturburu eskuma aldera.

Jose Miel Barandiaran, obras completas, tomo II, euskal folklore, editorial La Gran Enciclopedia Baska, Bilbao 1973

